



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA



GALDAKAOKO LEGEGINTZALDI ERDIKO BALORAZIOA

IKERKETA KUANTITATIBOA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. METODOLOGIA OHARRAK	3
3. EMAITZAK	4
3.1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK	4
3.2. GALDAKAOREKIKO ASEBETETZE MAILA ETA ARAZO NAGUSIAK	7
3.2.1. GALDAKAOKO ASEBETETZE MAILA, BIZITZEKO UDALERRI MODUAN	8
3.2.2. GALDAKAOKO ARAZORIK GARRANTZITSUENA	9
3.2.3. HERRITARREN KEZKA NAGUSIENA.....	10
3.2.4. BIZI DUGUN EGOERAREN BALORAZIOA.....	11
3.3. UDAL GOBERNUAREN BALORAZIOA.....	12
3.3.1. UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIA	13
3.3.2. UDAL ORDEZKARI POLITIKOEN EZAGUTZA MAILA ETA BALORAZIOAK	14
3.3.3. UDAL ORDEZKARI POLITIKOEN BALORAZIO INDIBIDUALAK.....	15
3.4. UDAL KUDEAKETAREN BALORAZIOA.....	17
3.4.1. UDAL KUDEAKETAREN BALORAZIOA EREMU DESBERDINETAN	18
3.4.2. UDAL GOBERNUAREN INGURUKO BALORAZIOA HAINBAT ASPEKTUTAN	19
3.4.3. UDALAK LEGEGINTZALDI HONETAN EGINDAKO LANAREN BALORAZIO OROKORRA.....	20
3.5. GALDAKAOKO UDALAREN PROIEKTUEN INGURUKO BALORAZIOA	21
3.5.1. PROIEKTUEN GARRANTZIA MAILA	22
3.5.2. PROIEKTUEN LEHENTASUNA	23
3.5.3. GALDAKAOKO LOTURAK ETA KOMUNIKAZIOAREN BALORAZIOA	25
3.5.4. USANSOLOREN ERABAKITZEKO ESKUBIDEA	26
3.6. COVID GARAIAREN INGURUKO ATALA	27
3.6.1. KONFINAMENDU GARAIAN IZANDAKO EGOERA.....	28
3.6.2. UDAL KUDEAKETA COVID GARAIAN	29

1. SARRERA

Datozen orriotan Galdakaoko Udalaren eskariz Aztiker Soziologia Ikerguneak egindako legegintzaldi erdiko balorazioaren inkestaren emaitzak jasotzen dira. Ikerketaren helburu nagusia Galdakaoko herritarrek eremu desberdinetan udal kudeaketaz eta legegintzaldiko proiektu/ekintza nagusiez dituzten iritzi eta hautemateak aztertzea izan da. Horretarako, inkesta telefonikoa izan da jarraitutako metodologia.

Txosten honetan ikerketaren xehetasun teknikoak eta edukiak aurkezten dira, honako egitura jarraituz:

- Hasteko, ikerketa egiteko erabili den metodologia azaltzen da.
- Ondoren, inkestan landutako gaiak aztertzen dira:
 - Inkestan parte hartu duten herritarren **aldagai soziodemografikoak**.
 - Inkestatuek adierazitako **Galdakaorekiko asebetetze maila eta** identifikatutako **herriaren arazo nagusiak**
 - **Inkestatuen kezka nagusiak, eta egoeraren balorazioa**, orain eta sei hilabete barru.
 - Inkestatuen udal gobernuaren eta oposizioaren inguruko hautemateak: **udal ordezkariaren ezagutza maila eta ordezkari politiko bakoitzaren balorazioa**.
 - Herritarrek egindako legegintzaldiaren balorazioa aspektu desberdinetan: **udal kudeaketaren alor desberdinetan egindako lanari dagokienez, udal gobernuaren jarrera/gaitasun politikoak**, eta **legegintzaldiaren balorazio orokorra**.
 - Herritarrek **Galdakaoko Udalak aurrera eraman ditzakeen proiektu desberdinei emandako garrantzia maila eta lehentasuna**.
 - Herritarren iritzia udalerrian gaur egun interesa pizten duten bi gairen inguruan: alde batetik, **herriko konexioa eta komunikazioa**, eta bestetik, **Usansoloren erabakitzeko eskubidea**.
 - Inkestatuen **egoera pertsonala eta udalaren kudeaketaren balorazioa COVID garaiaren testuinguruan**.

2. METODOLOGIA OHARRAK

ERABILITAKO TEKNIKA: Galdakaoko herritarrei egindako inkesta egituratua.

UNIBERTSOA: Galdakaon bizi diren 18 urtetik gorako herritarrak.

LAGINA: 400 herritar.

LAGINKETA: Lagina unibertsoaren argazki ahalik eta fidelena izan zedin, adina eta sexuaren arabera kuota erabili dira.

GALDERA-SORTAK: Aztertu nahi ziren gaien inguruko galderekin osatu dugu galdera-sorta, Udaleko ordezkariekin elkarlanean. Elkarrizketa batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz egin direnez, bi galdera-sorta izan ditugu, hizkuntza bakoitzean bana.

LANDA-LANA: Inkestak 2022ko urtarrilaren 24 eta otsailaren 4 bitartean egin dira.

AKATS TARTEA: $\pm\%5,0$ lagin osoarentzat, **$\%95,5$ eko konfiantza mailan.**

KANALA: Inkesta telefonikoak egin dira.

DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: 18 urtetik gorako Galdakaoko herritarrak

Lagina: 400 herritar.

Landa-lana: Inkestak 2022ko urtarrilaren 24 eta otsailaren 4 bitartean.

Akats tartea: $\pm\%5,0$ lagin osoarentzat, $\%95,5$ eko konfiantza mailan.

Guztira, 400 inkesta egin dira adierazitako daten artean. Ondoren, inkesta horiek sexua, adina eta euskara mailaren arabera haztatu dira.

3. EMAITZAK

3.1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Inkestatuen artean, emakumeen ehunekoa gizonena baino apur bat altuagoa da (%51,5 eta %48,5 hurrenez hurren). Adinari dagokionez, lau adin tarte erabili dira: 18-34, 35-49, 50-64 eta 65 urtetatik gorakoak. Hauen artean, gazteen adin tarte (18-34) txikiena da (%19,1), eta 50 eta 64 urte bitartekoa handiena (%26,4). Inkestatuen erdia baino gehiagok (%55,1) 50 urte baino gehiago ditu.

Inkestaren parte-hartzaileak Galdakaoko gune desberdinetan bizi dira. Zehazki, inkestatuen ehuneko handiena (%35,2) Galdakoko erdigunean bizi da. Usansoloko herritarrak hiru auzotan banatzen dira, eta bateratzen baditugu %10,1ra iristen dira. Gune hauetaz gain, inkestatuen %10,1 Urretan bizi da, Aperribaiko herritarrak %7a dira, eta San Ignazio-Berezikoetxe gunean bizi direnak %6,6a dira. Gainontzeko guneak erantzunen 5%tik behera kokatzen dira.


Lan egoerari dagokionez, bi multzo nagusitan banatu ditzakegu inkestatuak: lan ordaindua eta lanaldi osoan egiten dutenak (%40,2), eta jubilatu/pentsionistak (%30,6). Beste aukerak %10etik behera kokatuta daude.

Euskara mailaren araberako inkestatuen banaketa honakoa da: euskaldunak (%43,1), erdaldunak (%36,4), eta ia-euskaldunak (%20,5).

Sexua / generoa


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Emakumezkoa	206	51,5
Gizonezkoa	194	48,5
Guztira	400	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"

**Adin-tartea**


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
18-34	77	19,1
35-49	103	25,8
50-64	115	28,7
65+	106	26,4
Guztira	400	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"

**Zein da bizi zaren gunea?**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Aperribai	28	7,0
Bengoetxe	18	4,6
Zuatzurre	10	2,5
Urreta	40	10,1
San Ignazioa - Berezikoetxe	26	6,6
Zabalea	28	7,0
Zabalgane	12	2,9
Zuhatzu	3	,8
Galdakao erdigunea (Kurtzea...)	141	35,2
Elexalde	8	2,1
Bekea-Olabarri-Altamira-Padrola	18	4,4
Usansolo-Erdigunea	27	6,9
Usansolo-Gorozibai	5	1,2
Usansolo-Arteta	8	2,1
Beste bat	17	4,2
Ez dut erantzun nahi	10	2,6
Guztira	400	100,0


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



Azkenik, zuri buruzko beste bi galdera egin nahi dizkizut. Zein da zure lan egoera?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Lan ordainduan (jardun osoan)	160	40,2
Lan ordainduan (jardun murriztuan)	33	8,4
Langabezian	28	7,1
Etxeko langilea	10	2,4
Ikaslea	17	4,2
Ikasi + lana	6	1,6
Jubilatu / pentsionista	122	30,6
Beste bat	18	4,5
Ez dut erantzun nahi	4	1,0
Guztira	399	100,0


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



Zein da zure euskara maila? Euskaraz ulertu eta hitz egiten duzu ondo, hitz egin nekez baina ulertzen duzu edo ez duzu ulertzen?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Ondo ulertu eta hitz egin	173	43,1
Ulertu bai, hitz egin nekez	82	20,5
Ez ulertu ez hitz egin	146	36,4
Guztira	400	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



3.2. GALDAKAOREKIKO ASEBETETZE MAILA ETA ARAZO NAGUSIAK

Bizileku moduan Galdakaorekin duten asebetetze mailaz galdetuta, inkestatuek 7,8ko batez besteko emaitza ematen diote herriari. Batez bestekoaz gain emaitzen banaketa erreparatzen badugu, inkestatuen erdia baino gehiagoren asebetetze maila 7 eta 8ren artean kokatzen da (%56,3). Aldiz, zentzu honetan balorazio txarra egiten dutenen ehunekoa (0-4) oso txikia da, %2,2koa.

Herriaren arazo nagusia aipatzeko eskatu zitzairen Galdakaoko inkestatuei, erantzun ireki moduan. Inkestatuaren erantzuna jaso ondoren, inkestatzaileak aurretik prestatutako zerrenda batean erantzun bakoitza sailkatzen zuen. Gainera, behin landa lana bukatuta, ustiaketa prozesuan "Beste bat" kategorian sailkatutako erantzun batzuk gaika multzokatu ziren. Hori guztia kontuan hartuta, Galdakaoko herritarrek bi arazo nagusi identifikatzen dituzte: "Garraio publikoa, mugikortasunerako zailtasunak, konexioak" (%31,7) eta "Aparkaleku falta" (22,4). Mugikortasunarekin lotu ditzakegun beste bi gai, "trafikoa" eta "metroa" ere aipatzen dira (%3,6 eta %2,6 hurrenez hurren). Azpimarratzekoak dira ere bai "Azpiegitura publikoak eta beren egoera" gaiaren presentzia (%9,7), eta "Aisialdi guneak (herriko parkeak, frontoia...)"(%7).

Maila pertsonalean beren kezka nagusia zein den galdetuta, Galdakaon identifikatutako gai berdinak aurkitzen ditugu: lehenengo postuan "Garraio publikoa, mugikortasunerako zailtasunak, konexioak" (%17,7), bigarrenean "Aparkaleku falta" (%16,2), hirugarrenean "Azpiegitura publikoak eta beren egoera" gaiaren presentzia (%9,7), eta laugarrenean "Aisialdi guneak (herriko parkeak, frontoia...)" (%6,8). Hauetaz gain, beste gai batzuk aipatzen dira: "Lan merkatuari lotutako arazoak, langabezia" (%6,1), "Koronabirusa (Covid-19)" (%4,5), "Herriaren garbitasuna, kaleen garbitasuna" (%4,5), "Adineko pertsonen arazoak" (%3,6), "Etxebizitzari lotutako arazoak, etxebizitza eskaintza txikia, garestia..." (%3,5), eta Metroa (%2,9). Azken hori, aipamen askok gai honi erreparatzen ziotela ikusita, ustiaketa prozesuan kategoria gisa sortu zen.

Txosten honen eranskinetan herriaren arazoei eta herritarren kezkei buruzko informazio gehiago aurki daiteke; izan ere, inkesta amaieran inkestatuei nahi zuten iruzkina gehitzeko eskatu zitzairen, eta herritar gehienek lehen aipatutako arazoak eta kezkak berriro azpimarratzera jo zuten.


Bizi dugun egoeraren balorazioari dagokionez, Galdakoztarren %45k ontzat ematen du egoera. Hauen artean, gehiengoak uste du egoera "nahiko ona" dela, eta bakarrik %2,8k "oso ona" dela esaten du. Kontrako zentzuan, inkestatuen %20,8k uste du bizi dugun egoera "nahiko txarra" dela, eta %6,6k "oso txarra" dela erantzuten du. Azkenik, herritarren %25,7k erantzun neutrora jotzen du gaur egungo egoera deskribatzeko, hau da, "ez ona, ez txarra" bezala deskribatzen du. Etorkizunari begira, inkestatuen gutxiengoak (%6,3) modu negatibo batean proiektatzen du sei hilabete barru biziko dugun egoera. Aldiz %41,5k uste du egoera hobea izango dela, eta %43,9k esaten du egoera berdin geldituko dela.

3.2.1. GALDAKAOKO ASEBETETZE MAILA, BIZITZEKO UDALERRI MODUAN

Esango zenidake zein neurritan zauden asebeteta zure herriarekin, bizitzeko leku moduan? Oтик 10erako eskalan: 0k esan nahi du ez zaudela batere asebeteta eta 10ek erabat asebeteta zaudela.

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio txarra	9	2,2
Erdipurdiko balorazioa	48	12,2
Balorazio ona	223	56,3
Oso balorazio ona	117	29,4
Guztira	397	100,0
Batez bestekoa		7,8

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"




BATEZ
BESTE
7,8

3.2.2. GALDAKAOKO ARAZORIK GARRANTZITSUENA

Zure ustez, zein da Galdakaok duen arazorik garrantzitsuena?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Garraio publikoa, mugikortasunerako zailtasunak, konexioak	127	31,7
Aparkaleku falta	90	22,4
Azpiegitura publikoak eta beren egoera	39	9,7
Aisialdi guneak (herriko parkeak, frontoia...)	28	7,0
Herriaren garbitasuna, kaleen garbitasuna	15	3,7
Trafikoa	15	3,6
Metroa	10	2,6
Lan merkatuari lotutako arazoak, langabezia	10	2,5
Etxebizitzari lotutako arazoak, etxebizitza eskaintza txikia, garestia...	9	2,2
Kaleen egoera, mantenua (argiztapena, espaloiak, estolderia)	9	2,1
Auzoek jasotako arreta, abandonua	7	1,7
Adineko pertsonen arazoak	6	1,6
Gazteekin lotutako gaiak	6	1,6
Ingurumenarekin lotutako gaiak	5	1,2
Zerbitzu publikoen hedadura, laguntza sozialak...	2	0,5
Euskararen egoera	1	0,3
Koronabirusa (Covid-19)	1	0,2
Besterik	21	5,3
Guztira	400	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"




3.2.3. HERRITARREN KEZKA NAGUSIENA

Eta zein da pertsonalki zure kezka nagusiena?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Garraio publikoa, mugikortasunerako zailtasunak, konexioak	71	17,7
Aparkaleku falta	65	16,2
Azpiegitura publikoak eta beren egoera	41	10,2
Aisialdi guneak (herriko parkeak, frontoia...)	27	6,8
Lan merkatuari lotutako arazoak, langabezia	24	6,1
Koronabirusa (Covid-19)	18	4,5
Herriaren garbitasuna, kaleen garbitasuna	18	4,5
Adineko pertsonen arazoak	14	3,6
Etxebizitzari lotutako arazoak, etxebizitza eskaintza txikia, garestia...	14	3,5
Metroa	12	2,9
Kaleen egoera, mantenua (argiztapena, espaloiak, estolderia)	9	2,3
Arazo ekonomikoak, krisia	9	2,2
Trafikoa	7	1,8
Auzoek jasotako arreta, abandonua	7	1,7
Gazteekin lotutako gaiak	7	1,7
Emakumeen kontrako biolentzia	3	0,8
Zerbitzu publikoen hedadura, laguntza sozialak...	3	0,7
Euskararen egoera	2	0,6
Haur eta gazteen hezkuntza	2	0,6
Ingurumenarekin lotutako gaiak	2	0,4
Administrazio oso urruna, burokrazia	0	0,1
Besterik. Zein?	45	11,2
Guztira	400	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"




3.2.4. BIZI DUGUN EGOERAREN BALORAZIOA

Orokorrean gaur egun bizi dugun egoera nolakoa dela esango zenuke?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Oso ona	11	2,8
Nahiko ona	169	42,2
Ez ona, ez txarra	103	25,7
Nahiko txarra	83	20,8
Oso txarra	26	6,6
ED/EE	7	1,8
Guztira	399	100,0


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



Eta sei hilabete barru egoera hobea edo okerragoa izango dela uste duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Egoera hobea	166	41,5
Berdina	175	43,9
Egoera okerragoa	25	6,3
ED/EE	33	8,3
Guztira	399	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



3.3. UDAL GOBERNUAREN BALORAZIOA

Udal gobernua modu desberdinetan eta hainbat eremutan baloratzea proposatu zitzairen inkestatuei. Hasteko, herritarrek udalari eta oposizioari buruz duten iritzia jasotzeko asmoz, hainbat esaldi aukeratzeko planteatu zitzairen herritarrei. Udalari dagokionez, Galdakoztarren erdia baino gehiagok (%57,5) "Badaki nola konpondu Galdakaoko arazoak, baina denbora gehiago behar du" esaldia aukeratu zuen. Beste iritzi bat dutenen artean, %13,9k uste du Udalak "Galdakaoko arazoak konpontzen ari dela", %11,8k Udalak "Ez dakiela nola konpondu Galdakaoko arazoak", %10,5k ez daki, eta %6,1k uste du "Herriko arazo nagusiak konpontzea udalaren eskumenetatik kanpo dagoela".

Oposizioaren lana baloratzeko momentuan, oposizioak "Udal Gobernuari kritika hutsa eta oztopoak jarri besterik ez duela egiten" pentsatzen dutenaren ehunekoa %50tik gertu dago (%44,8). Inkestatuen %8,2k, aldiz, uste du oposizioak jarrera propositiboa duela, hau da, "Galdakaoko arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen duela". Inkestatuen beste erdia, %47a, ez dator bat proposatutako esaldiekin edo ez du iritzia ematen.

Egun Galdakaoko udalean dauden ordezkari politiko nagusien balorazioak jasotzeko datu mota desberdinak erabili dira. Lehenik, inkestatuei ordezkari desberdinak ezagutzen dituzten ala ez galdetu zitzairen. Kasu honetan, emaitzek erakusten digute Iñigo Hernando ordezkari politiko ezagunena dela, eta bere ezagutza maila nabarmen altua dela (%71,1). Ondoren, Fernando Izagirre aurkitzen dugu; izan ere, inkestatuen %30,5k ezagutzen duela adierazten du. Beste ordezkari politikoen ezagutza maila %12 eta %20 bitartean kokatzen da, hurrenkera honi jarraituz: Jose Luis Bernal (%20,3), Olaia Parra (%18,5), Txema Larrazabal (%14,1) eta Juan Agustin Aizpuru (%12,8).


Bigarrenik, inkestatuek ezagutzen zuten ordezkari politiko bakoitzaren lana 0tik 10era baloratu zuten. Batz bestekoak erreparatuta, Iñigo Hernando da emaitzarik altuena jasotzen duen ordezkaria (7,4). Ondoren, Olaia Parra eta Juan Agustin Aizpuru aurkitzen ditugu (6,8 eta 6,7 hurrenez hurren); 6tik behera Jose Luis Bernalen eta Txema Larrazabalen emaitzak daude (5,9 eta 5,2 hurrenez hurren). Fernando Izagirreren da 5tik behera kokatuta dagoen emaitza bakarra (4,6).

3.3.1. UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIA

Ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto Udalari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Galdakaoko arazoak konpontzen ari da	56	13,9
Badaki nola konpondu Galdakaoko arazoak, baina denbora gehiago behar du	229	57,5
Ez daki nola konpondu Galdakaoko arazoak	47	11,8
Herriko arazo nagusiak konpontzea udalaren eskumenetatik kanpo dago	24	6,1
Ez dakit	42	10,5
Ez dut erantzun nahi	1	0,3
Guztira	399	100,0


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



Eta ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto oposizioaren lanari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Galdakaoko arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen du	33	8,2
Udal Gobernuari kritika hutsa eta oztopoak jarri besterik ez du egiten	179	44,8
Ez bat ez beste	99	24,8
Ez dakit	82	20,6
Ez dut erantzun nahi	7	1,7
Guztira	399	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"




3.3.2. UDAL ORDEZKARI POLITIKOEN EZAGUTZA MAILA ETA BALORAZIOAK

Ordezkarri politikoaren ezagutza, balorazioa eta aprobazioa

	EZAGUTZA	BALORAZIOAK	APROBAZIOA ¹
Iñigo Hernando Arriandiaga (Alkatea- EH BILDU)	71,1	7,4	64,80
Olaia Parra Mezo (AUZOAK)	18,5	6,8	16,74
José Luis Bernal Martínez (PODEMOS-EQUO)	20,3	5,9	14,82
Juan Agustín Aizpuru Izaguirre (USANSOLO HERRIA)	12,8	6,7	10,75
Fernando Izaguirre García (PNV)	30,5	4,6	17,04
Txema Larrazabal Martínez (PSE)	14,1	5,2	8,81

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



Beste zinegotziren bat aipatu nahiko zenuke eta bere lana baloratu?²

	AIPAMENAK
Asier Egiraun	5
Mari Paz Losada	5
Iñaki Urgoiti	2
Ainhoa Agirregoikoa	1

	AIPAMENAK
Ibon Garcia	1
Amets Iturbe	1
Nerea Orozco	1
Ruben Seoane	1

¹ APROBAZIOA: Biztanleria osotik, buruzagi politiko bakoitzari 5 puntu edo gehiago eman diotenen ehunekoa.


² Taula honetan agertzen dira inkestatuek erantzun ireki moduan aipatutako beste zinegotzi batzuen izenak, baita bakoitzak jaso duen aipamen kopurua ere.

3.3.3. UDAL ORDEZKARI POLITIKOEN BALORAZIO INDIBIDUALAK

Iñigo Hernando Arriandiaga (Alkatea- EH BILDU). Nola baloratzen duzu bere lana? (0 = oso gaizki, 10 = oso ondo)

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio txarra (0-3)	5	1,8
Erdipurdikoko balorazioa (4-6)	54	19,1
Balorazio ona (7-8)	148	52,1
Oso balorazio ona (9-10)	55	19,5
ED-EE	21	7,4
Guztira	284	100,0


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



Olaia Parra Mezo (AUZOAK) Nola baloratzen duzu bere lana? (0 = oso gaizki, 10 = oso ondo)

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio txarra (0-3)	3	4,1
Erdipurdikoko balorazioa (4-6)	15	20,9
Balorazio ona (7-8)	33	45,1
Oso balorazio ona (9-10)	6	8,4
ED-EE	16	21,6
Guztira	74	100,0


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



José Luis Bernal Martínez (PODEMOS-EQUO) Nola baloratzen duzu bere lana? (0 = oso gaizki, 10 = oso ondo)

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio txarra (0-3)	5	6
Erdipurdikoko balorazioa (4-6)	32	39,7
Balorazio ona (7-8)	24	29,2
Oso balorazio ona (9-10)	1	1,7
ED-EE	19	23,4
Guztira	81	100,0


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



Juan Agustín Aizpuru Izaguirre (USANSOLO HERRIA) Nola baloratzen duzu bere lana? (0 = oso gaizki, 10 = oso ondo)

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio txarra (0-3)	0	0,9
Erdipurdikoko balorazioa (4-6)	24	46,4
Balorazio ona (7-8)	11	20,9
Oso balorazio ona (9-10)	7	13,8
ED-EE	9	18,0
Guztira	51	100,0


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



Fernando Izaguirre García (PNV) Nola baloratzen duzu bere lana? (0 = oso gaizki, 10 = oso ondo)

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio txarra (0-3)	24	20,0
Erdipurdikoko balorazioa (4-6)	45	36,6
Balorazio ona (7-8)	16	13,3
Oso balorazio ona (9-10)	1	0,7
ED-EE	36	29,4
Guztira	122	100,0


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



Txema Larrazabal Martínez (PSE) Nola baloratzen duzu bere lana? (0 = oso gaizki, 10 = oso ondo)

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio txarra (0-3)	8	13,6
Erdipurdikoko balorazioa (4-6)	21	37,0
Balorazio ona (7-8)	11	20,3
Oso balorazio ona (9-10)	0	0,0
ED-EE	16	29,1
Guztira	56	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



3.4. UDAL KUDEAKETAREN BALORAZIOA

Galdakaoko herritarrek udal kudeaketa hainbat eremutan baloratu zuten: euren auzoak udaletik jasotzen duen arreta, enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapena, kale garbiketa, gizarte zerbitzuak, hirigintza politika, kultur eskaintza, herritarren parte hartzea, informazioa (ondo informatzen den edo..), jasangarritasuna eta ingurumena.

Balorazio positiboak erreparatzen baditugu, eremu gehienetan inkestatuen erdia baino gehiagok (%50aren bueltan) balorazio "nahiko ona" edo "ona" ematen diote udal kudeaketari. Aldiz, "hirigintza politika" eta "Enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapena" eremuei balorazio "nahiko ona" eta "oso ona" ematen dietenen ehunekoak baxuagoak dira (%38 eta %43,3 hurrenez hurren). Hala ere, eremu askotan "Ez dakit/ez dut erantzun nahi" aukeratu dutenen edo eremuari balorazio "ez ona/ez txarra" ematen dietenen ehunekoak nabarmen altuak dira. Hori guztia kontuan hartuta, balorazioen norabidea argiago ulertzeko indize bat sortu da. Eremuen balorazioen ehunekoak hartuz eta -100/100 ardatz batean kokatuta, ikus dezakegu eremu guztiek balio positiboak dituztela; izan ere, balorazio positiboaren pisua balorazio negatiboena baino handiagoa da. Zehazki, balio altuenak 30tik gora kokatzen dira eremu hauetan: "kale garbiketa", "gizarte zerbitzuak" eta "kultur eskaintza". "Hirigintza politika", ordea, balorazio okerrean jasotzen duen eremua da, 8,4ko indizearekin.

Udal kudeaketaren eremu desberdinak baloratzeaz gain, inkestatuek udal gobernuaren gaitasunen eta jarreraren inguruko iritziak adierazi zituzten. Horrela, udal gobernuaren hainbat aspektu 0tik 10era baloratu zituzten: herritarren arazoekiko hurbiltasuna, gestiorako gaitasuna, zintzotasuna, akordioak lortzeko gaitasuna, eta lidergoia izateko gaitasuna. Eremu guztien batez besteko balorazioak 6 eta 7 artean kokatzen dira, akordioak lortzeko gaitasunaren balorazioa baxuena izanik (6,2), eta zintzotasunarena altuena (6,7).


Bukatzeke, 0tik 10era baloratzerako gonbidatuta, Galdakoztarrek 6,8ko batez besteko emaitza ematen diote Udalak legegintzaldi honetan egindakoari. Inkestatuen %52,5k 7ko edo 8ko balorazioa egiten dute; %30,4k 4 edo 6, %13,3k 9 edo 10 ematen diote, eta azkenik %3,8k 0 eta 3 bitarteko balorazioa ematen diote legegintzaldiari.

3.4.1. UDAL KUDEAKETAREN BALORAZIOA EREMU DESBERDINETAN

Udal gobernuaren kudeaketaren balorazioa eremu desberdinetan

	Zure auzoak udaletik jasotzen duen arreta		Enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapena		Kale garbiketa		Gizarte Zerbitzuak		Hirigintza politika		Kultur eskaintza		Herritarren parte hartzea		Informazioa (ondo informatzen den edo..)		Jasangarritasuna, ingurumena	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Oso ona	23	5,7	16	4,1	69	17,2	9	10,5	9	2,2	41	10,3	18	4,5	33	8,3	13	3,3
Nahiko ona	203	51,0	156	39,2	218	54,5	143	50,0	143	35,8	226	56,6	192	48,0	229	57,3	195	48,9
Ez ona ez txarra	65	16,3	74	18,5	44	11,1	73	5,3	73	18,4	47	11,8	59	14,8	48	12,1	86	21,5
Nahiko txarra	54	13,4	49	12,4	43	10,7	68	6,6	68	16,9	27	6,9	53	13,3	51	12,8	33	8,2
Oso txarra	38	9,6	16	4,0	21	5,3	13	2,0	13	3,2	12	3,0	11	2,8	19	4,8	8	2,0
ED/EE	16	4,0	87	21,8	5	1,2	93	25,6	93	23,4	46	11,4	66	16,5	19	4,7	64	16,0
Guztira	399	100,0	399	100,0	399	399	399	100,0	399	100,0	399	100,0	399	100,0	399	100,0	399	100,0
Indizea	15,0		13,4		33,8		30,2		8,4		32,2		19,0		25,8		21,6	

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"




3.4.2. UDAL GOBERNUAREN INGURUKO BALORAZIOA HAINBAT ASPEKTUTAN

Udal gobernuaren inguruko balorazioa hainbat aspektutan

	Herritarren arazoekiko hurbiltasuna		Gestiorako gaitasuna		Zintzotasuna		Akordioak lortzeko gaitasuna		Lidergoa izateko gaitasuna	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Balorazio txarra (0-3)	18	5,1	14	4,3	20	6,1	23	7,9	17	5,6
Erdipurdiko balorazioa (4-6)	139	39,9	147	45,2	108	33,0	129	44,9	105	35,3
Balorazio ona (7-8)	167	48,1	151	46,2	158	48,3	106	36,9	148	49,6
Oso balorazio ona (9-10)	24	6,9	14	4,3	41	12,6	29	10,2	29	9,6
Guztira	348	100,0	326	100,0	328	100,0	287	100,0	299	100,0
Batez bestekoa	6,5		6,4		6,7		6,2		6,6	

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"




3.4.3. UDALAK LEGEGINTZALDI HONETAN EGINDAKO LANAREN BALORAZIO OROKORRA

Esadazu, mesedez, nola baloratzen duzun oro har Udalak legegintzaldi honetan egindakoa (2019tik), Otik 10erako eskala erabiliz. Oak esan nahi du oso gaizki ari dela eta 10ak oso ondo ari dela

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio txarra (0-3)	14	3,8
Erdipurdiko balorazioa (4-6)	111	30,4
Balorazio ona (7-8)	191	52,5
Oso balorazio ona (9-10)	48	13,3
Guztira	365	100,0
Batez bestekoa		6,8

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



BATEZ
BESTE
6,8

3.5. GALDAKAOKO UDALAREN PROIEKTUEN INGURUKO BALORAZIOA

Atal honetan Galdakaoko proiektu edo gai zehatzei buruzko herritarren iritzia lantzen dira. Alde batetik, inkestatuek herrian abian jarri daitezkeen proiektu desberdinei ematen dieten garrantzia maila aztertzen da. Beste aldetik, aktualitateko bi gairen inguruko iritzia ere jasotzen da.

Proiektu/ekimenei buruzko balorazio prozesua arintzeko asmoz, kasu honetan lagina bi taldetan banatu zen. Horrela, inkestatuen erdiak lehenengo bost proiektuak baloratu zituen, eta beste erdiak, gainontzeko seiak. Irakurketa orokorra eginez, esan dezakegu Galdakoztarren garrantzia handia ematen dietela aukeratutako proiektu guztiei. Hain zuzen, 0tik 10era baloratuta, proiektu guztiek 7,4 eta 8,5 bitarteko batez besteko garrantzia maila jasotzen dute. Nahiz eta alde txikia egon, garrantzia maila altuena jasotzen duten proiektuak "Adinekoentzat informazio bulegoa" eta "Herritarren irisgarritasuna/akzesibilitatea hobetzeko obrak, igogailuak, arrapala mekanikoak" dira, 8,5ko batez bestekorekin. "Etorkinentzat harrera plana eta integrazio protokoloa" eta "Haurreskola berria", aldiz, dira garrantzia maila baxuena duten proiektuak, 7,4 eta 7,5 hurrenez hurren.

Lehen aipatutako proiektuen artean lehentasun handiena zeinek duen galdetu zitzaien inkestatuei. Bi proiektu multzoak batera aztertuta, "Enpresa berrientzako haztegia", "Gazteei bideratutako merkeko etxebizitzak", eta "Herritarren irisgarritasuna/ akzesibilitatea hobetzeko obrak, igogailuak, arrapala mekanikoak" dira lehentasun bezala gehien aukeratu diren proiektuak (inkestatuen %30aren bueltan). Aldiz, lehentasun gutxien duten proiektuei dagokienez, honako hauek ditugu: "erabilera anitzeko lokalak egokitzea herritarrentzat eta elkarteentzat" (%6,2), "Etorkinentzat harrera plana eta integrazio protokoloa" (% 5,9), "haurreskola berria" (%1,8) eta "Elexaldeko igerilekuetako taberna martxan jartzea" (%1,9).

Bukatzeko, inkestatuei Galdakaoko bi gai zehatzen inguruan bere iritzia ematea eskatu zitzaien: herriaren konexioa beste herriekin edo beste toki batzuekin, eta Usansoloren erabakitzeko eskubidea. Lehenengo kasuan, inkestatuen %38,5 Galdakaoren komunikazioa "ona dela" adierazten du, eta %23,2k "ez ona, ez txarra" erantzuna aukeratzen dute. Muturretan balorazio "oso ona" eta "oso txarra" egiten dutenen ehunekoak kokatzen dira, %10,2an eta %10ean hurrenez hurren.


Usansoloren erabakitzeko eskubideari dagokionez, galdakoztarren %64,1k uste du Usansolok erabakitzeko eskubidea eduki beharko lukeela. %15,8a ezezkoan dago, eta %17,6k ez daki.

3.5.1. PROIEKTUEN GARRANTZIA MAILA

Udal gobernuaren kudeaketaren balorazioa eremu desberdinetan

	Enpresa berrientzako haztegia		Adinekoentzatzat informazio bulegoa		Erabilera anitzeko lokalak egokitu herritar eta elkarreentzatzat		Etorkinentzatzat harrera plana eta integrazio protokoloa		Oinezkoentzatzat ibilbideak		Gazteei bideratutako alokairu merkeko etxebizitzak		Ibai ertza aisialdirako egokitzea		Haur eskola berria		Herritarren irisgarritasuna / akzesibilitatea hobetzeko obrak, igogailuak, arrapala mekanikoak		Kiroldegia handitzea		Elexaldeko igerilekuetako taberna martxan jartzea	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Garrantzia handia (7-10)	152	73,3	163	78,5	153	73,9	126	60,7	161	77,7	145	75,7	153	79,7	127	66,2	161	84,1	147	76,5	132	68,9
Ez handia ez txikia (4-6)	21	10,0	18	8,7	28	13,4	49	23,6	23	11,0	21	10,9	23	12,2	36	18,8	17	9,0	28	14,4	32	16,6
Garrantzia txikia (0-3)	5	2,2	3	1,4	7	3,3	6	2,7	5	2,2	12	6,0	2	1,3	9	4,7	2	1,1	4	2,2	14	7,1
ED-EE	30	14,5	24	11,4	20	9,4	27	13,0	19	9,1	14	7,4	13	6,8	20	10,3	11	5,8	13	6,9	14	7,4
Guztira	207	100,0	207	100,0	207	100,0	207	100,0	207	100,0	192	100,0	192	100,0	192	100,0	192	100,0	192	100,0	192	100,0
Batez bestekoa	8,2		8,5		7,8		7,4		8,3		7,9		8,3		7,5		8,5		8,1		7,6	


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



3.5.2. PROIEKTUEN LEHENTASUNA


Proiektu hauetatik zein da zuretzat lehentasun handiena duena?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Enpresa berrientzako haztegia (a)	66	31,7
Adinekoentzako informazio bulegoa (a)	46	22,1
Erabilera anitzeko lokalak egokitu herritar eta elkarteentzat (a)	13	6,2
Etorkinentzat harrera plana eta integrazio protokoloa (a)	12	5,9
Oinezkoentzako ibilbideak (a)	57	27,3
ED/EE	14	6,8
Guztira	207	100,0
Gazteei bideratutako alokairu merkeko etxebizitzak (b)	59	30,8
Ibai ertza aisialdirako egokitzea (b)	35	18,4
Haur eskola berria (b)	4	1,8
Herritarren irisgarritasuna/ akzesibilitatea hobetzeko obrak, igogailuak, arrapala mekanikoak (b)	60	31,2
Kiroldegia handitzea (b)	21	11,2
Elexaldeko igerilekuetako taberna martxan jartzea (b)	4	1,9
ED/EE	9	4,7
Guztira	192	100,0



Proiektuen garrantzia maila eta lehentasuna:

(a) n=207
(b) n=192




3.5.3. GALDAKAOKO LOTURAK ETA KOMUNIKAZIOAREN BALORAZIOA

Galdakao beste puntu batzuekin modu egokian lotzea, hala nola ospitalearekin eta beste udalerrri batzuekin, eskaera zaharra da. Egun nolakoa da lotura edo komunikazioa hori, oso ona, ona, ez ona ez txarra, txarra edo oso txarra?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Oso ona	41	10,2
Ona	154	38,5
Ez ona, ez txarra	92	23,2
Txarra	63	15,8
Oso txarra	40	10,0
ED/EE	9	2,2
Guztira	399	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakako legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"




3.5.4. USANSOLOREN ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Bestetik, Usansolotar askoren aspaldiko eskaera da Galdakaotik bereizteko kontsulta egin ahal izatea. Zure ustez, Usansolok erabakitzeke eskubidea eduki beharko luke edo ez?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	256	64,1
Ez	63	15,8
Ez dakit	70	17,6
Ez dut erantzun nahi	10	2,5
Guztira	399	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



3.6. COVID GARAIAREN INGURUKO ATALA

Inkesta amaieran, COVID garaiaren testuinguruarekin lotuta dauden bi galdera egin ziren. Hasteko, inkestatuak maila indibidualean eta hiru eremu desberdinetan COVID garaia nola bizitzen ari diren jaso zen. Hiru arloetan, herritarren erdiak COVID garaia "nahiko ondo" bizitzen ari dela aipatzen du. Arlo afektiboan ehuneko hau %45,7koa da; arlo ekonomikoan, %56,9koa, eta arlo fisikoan %52,7koa. Horretaz gain, azpimarratu behar da arlo afektiboan egoera "gaizki" edo "oso gaizki" bizitzen ari direnen ehunekoa %31,1ra iristen dela.

COVID garaian udal kudeaketa nola baloratzen duten galdetuta, inkestatuen %59,5k "nahiko ondo" erantzuten du. Inkestatuen %12,4k "ez ondo ez gaizki" aukeratzen du, eta %15,3k ez daki. Aspektu hau modu negatiboan baloratzen dutenak ("nahiko gaizki" edo "oso gaizki") %7,8an kokatzen da.


3.6.1. KONFINAMENDU GARAIAN IZANDAKO EGOERA

Nola bizitzen ari zara COVID garai hau ondoko eremuetan?

Arlo afektibo / emozionala (inguruko babesa, bakardadea, etxekideekin harreman...)

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso ondo	21	5,1
Nahiko ondo	183	45,7
Ez ondo ez gaizki	68	17,0
Nahiko gaizki	95	23,8
Oso gaizki	30	7,4
ED/EE	3	0,8
Guztira	399	100,0


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



Arlo ekonomikoa (etxeko ekonomia, lana...)

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso ondo	15	3,8
Nahiko ondo	227	56,9
Ez ondo ez gaizki	68	17,1
Nahiko gaizki	65	16,4
Oso gaizki	16	4,1
ED/EE	7	1,8
Guztira	399	100,0


Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



Arlo fisikoa (egoera fisikoa, sedentarismoa...)

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso ondo	32	8,0
Nahiko ondo	210	52,7
Ez ondo ez gaizki	60	14,9
Nahiko gaizki	79	19,8
Oso gaizki	15	3,7
ED/EE	4	0,9
Guztira	399	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"



3.6.2. UDAL KUDEAKETA COVID GARAIAN

Nola baloratzen duzu Udalaren kudeaketa COVID garaian?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso ondo	19	4,8
Nahiko ondo	237	59,5
Ez ondo ez gaizki	49	12,4
Nahiko gaizki	23	5,9
Oso gaizki	8	1,9
Ez dakit	61	15,3
Ez dut erantzun nahi	1	0,3
Guztira	399	100,0

Iturria: Aztiker, "Galdakaoko legegintzaldi erdiko balorazio inkesta, 2022"

